

# blausta! (16)

## Urunetan



**A**barrotsa eta durundia, sirena-hotsak eta Behe-Fidelity soinuak, barraketako barriketarien ahotsak eta umeen negarrak etxerakoan, zalantzarik gabe hor behean Harribarruenak Bilbo du, jai-suak harturik duen hiri antzeko zuloa. Terrazan dago, etxe merke horietako sasiteilatuan, zehatzago esanda. Gorputz guztia ubeldurez eta kolpez beterik du eta ez daki ziur zein etxe eta zein kaletan dagoen, gogora ekarri ditzakeen artean ez bait dagoz hehetasunok.

Roke, Andoni, beronen neska eta laurok, puzker mandoa zutelarik aldean, Bilbora etorri zirela gogoratzen zaio. Noizean behin ahora dardarren botilakoaren laguntzaz, irudimeneko pantailan ari da proiektatzen atzokoaz egin duen filmea.

— Ogitarako urunik barik geratu gozak, Roke —esan zion Andonik, Bilbora ailegatuta baino ez.


— Eta sama bustitzeko zeozer be beharko neukek —gehitu zuen berak, *uruna* zer ote zen igarri ezinik. Laster jakin zuen, ondo jakin ere.

Zorionezko bere lainoan inoiz baino zorionsuago *zuriaren* eraginez, kale ezagunak begitandu zitzaizkion Bilbokoak. Carlton hotelaren aurrean igarotzean bihotzean kinkada itzela nabaritu zuen.

— Ederra egin joagu! —esan zuen Rokek, Moyua plazari begira—. Gerra sasoiaren hor egon zuan Eusko Gobernua; gerran besteak nagusitu aurreko horretan Gobernu Zibila ipini; eta orain, Metroa, bien artean, ea behin eta betikoz Bilbo hau gobernatzeko modurik dagoen.

— Ez jeutsek bonbarik ipiniko azpian ba! —ordura arte isilik egondako Andoniren neskalgunak, Anak.

Josepek ez zuen ulertzen, ez hitzik, ez kinkadaren zergatia, ez Metroa Bilbon zertarako, ez neskak hikan egitea, ez ezer; egarri zen, beste barik. Gobernu Zibileko balkoian bandera espainiarra ikurrina baino handiagoa eta txapeloker pareta ere betiko estilokoa, bat handiagoa eta txikiagoa bestea.



Egarria Arriaga aurreko laberintoan asetu zuten. Hantxe bertako ingururen batean egin behar izan zuen businessa Andonik, ze laster ulertu zuen *urun* hori ze irin mota izaten den.

*Urunezko* lerrotxo bana eskaini zien beste hiru lagunei bulebarreko komunean Andoni aurrekulariak. Berak Josepek atzesku egin. Berdin zion zenbatgarrena izan. Rokeren hitzak datozkio burura.

— Oraintxe firmatzen joat komunismo hau nik. Ez dok martxa makala honek dakarrena!

— Han hasi zan martxa-haizeak

eragin eutsean oraingo hegaldia hau —bere buruari diotso Josepek, igande iluntzeari begira.

Ostean dena izan zen laberintoan dantza egitea. Mari-Jaia agertu arte ez zela ofizialmentean zabaltzen txoznarik eta alde zaharrera. Bazkaldu barik, garagardoak. Garagardoz garagardo, Garagarriaga teatroa. Gero, Udaletxe aurrera, erreka beste aldeko *kristalera*, alegia. Gora artistak. Uzkerria puzker egiteko puztu eta puztu puxika.

— Hori dok Bilboko alkatea, Ortuondo.

Rokeren puzkerria ez zen maka-

lagoa. Kupel bana zuten barruan lau lagunek.

— Hori ez dok ba Diputatua?

— Ez hori Pradera dok.

— Tira, biak be zer batekoak dozak biak, ortua eta pradera, euskara eta erdera, beti nagusi partidu bera, biba Kepa Junkera.

Handik aurrerakoak ilun proiektatzen zaizkio Joseperi oroigailuko pantailan. Badaki lagunak banan banan galdu zituena. Roke lehenik eta behin. Indian eta auskalo non ezaguturiko kale-saltzaile horietariko batekin berbetan geratu zen eta. Saltzaile-aldeaz haruntzago, Andoni

*urunetan* joan zen. Ez zen atzera agertu. Anak lepotik heldu zion. Su artifizialak lehertu zirenean, hamaitetan, tabako bila joan zen neska. Ordubete beranduago hogeitemeretzi urteko gizona zen Josepe. Tabakoarekin bueltan etorri eta ezagutu ere ez zuen egin Anak. Halaxe banandu ziren elkarrenetik.

Zelan joan zitzaion gaua, oharkabean, laberintoz laberinto, besoz besoz eta basorik baso, goizean ere usoa Arriagako gainan pausatu den arte. Orduantxe askatu zituzten zekortxoak edo zer izen diren haiek. Horretarako ja Jose Maria Harribarruenaren azken izena, besotik eusten izan duen neskak emandakoa, Koxe izan da.

Koxek Jainkosen deia aditu du bere baitan. Eta ez du jakin zer egin, ez bait gara gure baitakoak, ez eta marinela zaharrak ere. Eta izuen gordelekuen barrena doanaren moduan, adardunari aurre egin dio Marinelak. Bost minutu beranduago DYaren anbulantzian egon da.

— No se preocupe, la DYA le ayuda.

— La día? Más me gusta la noche.

Oroituz-oroituz, gaua dator, goldaketan, teilatuetako soroetara.

Garagardorik gabe geratu da noiz-eta etxe barrutik bere azken kanta faborittoa aditu duenean. «Y bordar de cayenas tu cintura». Ez du hitzik ere ulertzen baina, bai kantu ederra. Ederrago burua terrazara agertu duen neska, anbulantziatik atera eta sorospen lekuan ikusi zuen lehen erizaina, berbera. Etxeko nagusia da. Eta dagoeneko Txema den Harribarruena honen bihotzaren jabea ere.

— Beste gargardo bat, ene agurtxoa.

Aste nagusiko bigarren gau honetan buruaz baietz erantzun eta hogeituro perlatxo honek zelan ezagutu, nahastu eta bahitu duen gogoratzeari ekin dio, hau da, burura ekarri ditu Aste Nagusiko lehen goizean zekorrak bera aidean bota ondorengo-koak.

### txipiroti

#### esnea



Egilea: Pere Calders  
Izenburua: 'Ipuin laburrak'  
Itzultzailea: Joserra Utrere  
Argitaratzailea: 'Aizu!' aldizkaria, 42. zenbakia  
Orrialde kopurua: 58

#### Tramite kontuak:

Herio zigordunari esan zioten azken desiorako eskubidea zuela, baina harek paso egin zuela erantzun zien, ez bait ziren ados jarriko.

\*\*\*

#### Itsukeria:

Zerura joateko ala etxean geratu behar kera izanik, erabakiago izan zuen azkenekoa, kontrako propagandaren indarra handia izan arren, bere etxean itokinak edo antzekoen gabezia ugari izan arren.

\*\*\*

#### Expresoa:

Inork ez zion esan nahi zer ordutan pasako zen tren. Hain ikusten zuten maletaz kargaturik, ezen pena ematen bait zien esplikatzeak han ez zela sekula izan ez trenbiderik ez es-taziorik.

\*\*\*

#### Copyright:

Norbaitek egin nau ni eta saldua izan naiz. Ez dut sekula jakin ahal izan nork kobratu dituen deretxoak ezta negozio ona ala txarra izan ote naizen ere.